2017/01/24an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 24/01/2017.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Nestor Arana Arexolaleiba
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko urtarrilaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezin dela etorri adierazi du Joseba Iñaki Kerejetak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 24 de enero de 2017 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Joseba Iñaki Kerejeta.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2016-11-22 eta 2016-12-20.

**2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko urtarrilaren 19ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

**3.- MAZMELAKO AUZO-ALKATEAK BERE KARGUARI UKO EGITEAREN BERRI IZAN ETA AUZO ALKATE BERRIAREN KARGU HARTZEA.**

2015eko irailaren 10eko Alkate erabakiz Mazmela Elizatean Alkatearen ordezkari izateko (auzo alkate) Ainara Zubillaga Pagalday andrea izendatu zen.

Alkatearen ordezkari izendatutako horrek bere karguari uko egin zion 2016ko abenduaren 1eko idazki bidez, eta 2016ko abenduaren 2ko Alkate erabakiz, Iñaki Zurutuza Villar izendatu zen bere ordez kargurako.

Iñaki Zurutuza Villar udalbatzarraren bilkura honetan dago, eta berariaz onartu du Mazmelako auzo-alkate kargua.

**4.- GOROSARRIKO BIDEAREN NONDIK NORAKOA ONARTZEA ETA BIDEAREN MUGATZE ETA MUGARRIZTATZE ESPEDIENTEA HASTEA.**

Udalbatzarrak, 2005eko uztailaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuen “Gorosarriko bidea” izenarekin ezagutzen dena, hau da, GI-3310 errepidetik -Errota baserri parean hasita- Gorosarri-Azpikoa baserrirainoko bidea, erabilera publikokoa izan dela bertakoek gogoratzen dutenetik, eta horrela dela gaur egun ere.

Horren ondoren Udalbatzarrak hartutako erabaki bidez, bide osoa mugatzea eta mugarriztatzea nahi izan da, baina, ez da lortu. Udalbatzarrak 2006ko abenduan hartu zuen lan horiek egiteko lehen erabakia.

Mugatze eta mugarriztatze ekintza egiteko, udal zerbitzu teknikoek bidearen plano deskribatzailea egin dute, eta bertan zehaztuta gelditzen dira bidearen nondik norakoa eta ibilbide osoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikuluan ezarritakoaren arabera, plano horren

kopia bidali zitzaien bidearekin muga egiten duen lurren jabeei, nahi izanez gero proposatutako trazatuari buruz egoki iritzitako alegazioak egin zitzaten 15 egun balioduneko epean.

Emandako epea igarota, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Aurrez azaldutako guztiarengatik, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GI-3310 errepidetik -Errota baserri parean hasita- Gorosarri-Azpikoa baserriraino doan eta Gorosarri izenez ezagutzen den bidearen nondik norakoa onartzea udal zerbitzu teknikoak "2016ko ABUZTUA" dataz egindako plano deskribatzailean jasota dagoen bezala, non xehetasunez azaltzen den ibilbide osoa honela:

- LUZERA: 302 metro

- ZABALERA:

| KP (m) | Anchura (m) |
|---|---|
| 0 | 4 |
| 20 | 4 |
| 37,5 | 3 |
| 49,5 | 3 |
| 61 | 3,25 |
| 71 | 3,25 |
| 92 | 3 |
| 178 | 3 |
| 204 | 3,5 |
| 224,5 | 3,5 |
| 244 | 3 |
| 302 | 3 |

- MUGAK: Albo bakoitzean (eskuinean eta ezkerrean) ondoren esango diren eta, gaur egun, ondoren esango diren pertsonen jabetzako diren lurzatiekin egiten du muga:

| KP-tik (m) | KP-ra (m) | Eskuinaldeko jabeak | Ezkerraldeko jabeak |
|---|---|---|---|
| 0 | 23,5 | Cesar Fernandez Lage | Amaya Uribe-Etxeberria Idigoras |
| 23,5 | 145 | Cesar Fernandez Lage | Juan Luis Eraña |
| 145 | 260 | Timoteo Idigoras Cendoya | Juan Luis Eraña |
| 260 | 273 | Timoteo Idigoras Cendoya | Javier Agirre Bereciartua |
| 273 | 302 | Antonia Gorostiza | Javier Agirre Bereciartua |

**Bigarrena.-** GI 3310 errepidetik bide horretara egon den eta dagoen sarbidearen ezaugarriak kontuan izanik, bide horren erabilera oinezkoentzat bakarrik mugatzea.

**Hirugarrena.-** Bidea erabaki honen lehenengo puntuan balioztatutako planoan ezarritako trazatuaren arabera mugatzeko espedientea hastea.

**Laugarrena.-** Lur-neurketen ekitaldi publikoa egiteko, interesdunei deitzea eranskinean adierazitako egun eta ordurako.

**Bosgarrena.-** Ondoren adieraziko diren pertsonak Udalaren ordezkari izendatzea espedientearen instrukzioan eta lur-neurketa ekitaldian parte hartzeko:

1. *Batzordeburua: Josu Ezkurdia*
2. *Batzordekideak: Rafa Bernal*

   *Aitor Zubizarreta*

3. *Udal idazkaria: Edurne Iturbe Lascurain*
4. *Teknikaria: Elizabeth Jaregui*

**Seigarrena.-** Interesdunei jakinaraztea lur-neurketa ekitaldirako jarritako eguna baino hogei egun lehenagora arte beraien eskubideak babesteko eta frogatzeko dokumentuak aurkeztu ahal izango dituztela.

**ERANSKINA**

| **FINKA ZENBAKIA** | **Jabe mugakidearen izen-abizenak** | **EGUNA** | **ORDUA** | **LEKUA** |
|---|---|---|---|---|
| 03 061 | Antonia Gorostiza | 2017/05/04 | 10:00 h | Gorosarri-behekoa baserria |
| 03 492 | Javier Aguirre | 2017/05/04 | 10:00 h | Gorosarri-behekoa baserria |
| 03 485 | Timoteo Idigoras | 2017/05/04 | 12:00 h | Gorosarri-behekoa baserria |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 03 029 | Juan Luis Eraña | 2017/05/04 | 12:00 h | Errota baserria |
| 03 489 | Cesar Fernandez | 2017/05/04 | 13:00 h | Errota baserria |
| 03 486 | Amaia Uribe-etxeberria | 2017/05/04 | 13:00 h | Errota baserria |

**5.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2016KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2016ko urriaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*1.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 6.a).*

*2.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Museoari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 1.).*

*3.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 7.a).*

*4.- "Justifikatzeko" igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*
*(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2016ko 8.a).*

*5.- Aranburuzabala 28, 2. helbidean kontsumitutako urarengatik 2016ko lehen hiruhilekoan sortutako tasari errekargu exekutibotik salbuesten zion 01146. erabakiari jarritako eragozpen-txostena.*

*6.- ATXORROTX GKE-ri emandako diru laguntza kitatzeari buruzko 1247. erabakiari jarritako eragozpen-txostena.*

*(Ez da justifikatu diru laguntza zertarako erabili den).*

*4.- ESKOMOTOR ELKARTEARI 898. Alkate erabakiz emandako diru laguntzaren kitapenari jarritako ERAGOZPEN-TXOSTENA.*

*(Ez da justifikatu diru laguntzaren % 100 zertarako erabili den)*

*8.- EMAKUMEEN BIRA 2016 lasterketako bazkariaren gastua behar bezala ez delako justifikatu egindako eragozpen-txostena.*

*(ez da fakturarik aurkeztu)*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**6.- DORLETAKO 10. ZENBAKIKO ETXEJABEEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA.**

Eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean % 90eko hobaria aitortzeko eskaera egin dute Dorleta 10.eko jabekideek 2017ko urtarrilaren 12an.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga arautzen duen udal ordenantzan ondorengo hobaria jasotzen da:

_5.3.3.5._ *Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzekin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistek egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).*

*Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:*

*Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.*

*Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.*

*Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.*

*Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa izan beharko da.*

*Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.*

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, jarritako igogailuak ordenantzan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditu.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Dorleta 10eko jabekideei % 90eko hobaria ematea eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZean.

## 7.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO GUNERA ATXIKITZEKO ERABAKIA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua* onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

*a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da,*

*herritarren eta erakundeen arteko erlazioak Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:*

*a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioaindartu daitezen.*

*b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.*

*c) Laguntza eta lankidetza teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebehar arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.*

*d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.*

*e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.*

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta, bertan dauden zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehena:** Eskoriatzako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.

**Bigarrena:** Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.

*a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.*

*b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.*

*c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.*

*d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.*

*e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.*

*f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.*

*g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.*

*h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.*

*i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.*

***Hirugarrena:*** *Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.*

EZTABAIDA: erabakia hartu baino lehen, ondorengoek hitz egin dute:

- Aitor Zubizarretak esan du bere taldeak alde bozkatu behar badu ere, ez duela ulertzen zergatik hartu behar den erabakia hainbeste presarekin Dekretuan ez bada datarik aipatzen.
- Alkateak erantzun dio herritarren parte hartzea gai oso garrantzitsua dela eta horretaz asko hitz egin dela, eta beraz, oso interesgarritzat jotzen duela Udalak hasiera batetik, eta lehenbailehen hobe, proiektuan parte hartzea. Gainera, esan du, proiektu horrekin esperientziak trukatzeko aukera emango duen foro bat sortu nahi dela, Aldundiak ezagutu ditzala herri bakoitzeko egoera, eta horrela, bakoitzaren benetako beharren arabera bidera ditzala laguntzak.

**8.- GALDE-ESKEAK.**

8.1.- HONDAKINEI BURUZKO INFORMAZIO BULEGOA.

Aitor Zubizarretak hondakinei buruzko informazio bulegoaren leku aldaketaz galdetu du, eta ea aldaketa horrekin orain arte Ibarraundin ematen ziren zerbitzu guztiak udaletxean emango diren.

Josu Ezkurdiak erantzun dio egun Ibarraundin eskaintzen den zerbitzua udaletxean emango dela, Mankomunitatearen eskariz, otsailaren 1etik aurrera. Egun horretan hasita, edozein gertaera, arazo edo zalantza izanez gero edo informazioa eskatu nahi, udaletxeko obra publiko eta zerbitzuetako departamentura jo beharko da, eta Eli Jauregik izango du zerbitzua kudeatzeko ardura.

8.2.- ZARATA MAPA ETA UDAL ORDENANTZA

Nestor Aranak jakinarazi du hainbat kexa jaso dituela etxafleroak direla eta. Udal araudirik ez dagoela jakinda; esan du, bere ustez, zarata hori zein beste jatorri bat dutenak (adibide bezala industriak aipatu ditu) erregulatu eta kontrolatu beharra dagoela udalerri osoan. Horrela, “zarata mapa” bat egitea eta zarata arautu eta kontrolatzeko udal ordenantza onartzea proposatu du.

Rafa Bernal, araudi argi eta zehatza ez dagoenez, erabat ados dago bi tresna horiek izateko proposamenarekin.

Aitor Zubizarretak eskatu du ordenantza onartzeko herritarren parte hartze prozesua egitea.

Idazkariak jakinarazi du prozesu hori derrigorrezkoa dela 39/2015 Legea indarrean sartu zenetik, eta salbuespenak salbuespen, eta hau ez dela horrelako bat, ordenantza bat egin aurretik herritarrei kontsultatu behar zaiela eta beraiengandik informazioa jaso; eta horretarako, herritarrei informazioa eman behar zaiela ekimenarekin konpondu nahi diren arazoei buruz, araudiaren helburuei buruz...

Josu Ezkurdiak, proposamena oso interesgarria iruditzen zaiola esan ondoren, jakinarazi du hurrengo hirigintza batzorde informatzailerako gai zerrendan sartuko duela.

Denak ados daude.

8.3.- PATINETEENTZAKO APARKALEKUA LUIS EZEIZAN

Nestor Aranak esan du Luis Ezeiza ikastetxeak ikastetxetik gertu ikasleek patineteak aparkatzeko gune bat egokitzeko beharra ikusten duela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio berariaz dakiela eskaera horren berri, orain dela hamabost bat egun egon zela ikastetxeko ordezkari batekin, eta ordezkari horrek aurrekontu bat bidaltzeko zain dagoela gaiari ekiteko.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00etan amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

**1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 22/11/2016 y 20/12/2016.

**2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 19 de enero de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

**3.- TOMAR CUENTA DE LA RENUNCIA DE LA AUZO ALKATE DE MAZMELA Y TOMA DE POSESION DEL NUEVO AUZO ALKATE**

Por Resolución de Alcaldía de fecha 10 de setiembre de 2015 se nombró representante personal de la Alcaldía (AUZO ALKATE) en la Anteiglesia de Mazmela a Dña. Ainara Zubillaga Pagalday.

Por escrito de fecha 1 de diciembre de 2016 la designada presentó renuncia a su cargo y por Resolución de Alcaldía de fecha 2 de diciembre de 2016 se designó en su lugar a Iñaki Zurutuza Villar.

Iñaki Zurutuza Villar se encuentra presente en este acto y de forma expresa acepta el cargo de AUZO ALKATE DE Mazmela.

**4.- APROBACION DE TRAZADO E INICIO DE EXPEDIENTE DE DESLINDE Y AMOJONAMIENTO DEL CAMINO DE GOROSARRI.**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 15 de julio e 2005 adoptó, entre otros, el acuerdo de declarar que el camino conocido como Gorosarri, que discurre entre la carretera GI 3310, a la altura del caserío Errota, hasta el caserío Gorosarri-Azpikoa (Behekoa), ha sido, desde que se recuerda, y es en la actualidad de uso público.

Previos acuerdos plenarios adoptados con posterioridad, se ha intentado, sin resultado satisfactorio, proceder al deslinde y amojonamiento de todo el tramo del camino. El primero de los acuerdos adoptados a tal efecto por el Pleno Municipal se remonta a diciembre del 2006.

Al objeto de llevar a buen término el acto de deslinde y amojonamiento, los servicios técnicos municipales han levantado un plano descriptivo del camino, en el que queda definido su trazado y recorrido completo.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 84 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídica de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se dío traslado de una copia de dicho plano a los propietarios colindantes a fin de que en el plazo 15 de días hábiles alegasen lo que estimen en relación al trazado propuesto.

Transcurrido el plazo fijado, no se ha presentado alegación alguna.

Por todo lo anteriormente expuesto, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad y con el voto a favor de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar el trazado del camino conocido como Gorosarri, que discurre entre la carretera GI 3310, a la altura del caserío Errota, hasta el caserío Gorosarri-Azpikoa (Behekoa), según consta en el plano descriptivo elaborado por los servicios técnicos municipales con fecha "AGOSTO 2016" y en el que queda detallado su recorrido completo y pormenorizado de conformidad con los siguientes detalles:

- LONGITUD: 302 metros
- ANCHURA:

| P.K. (m) | Anchura (m) |
|---|---|
| 0 | 4 |
| 20 | 4 |
| 37,5 | 3 |
| 49,5 | 3 |
| 61 | 3,25 |
| 71 | 3,25 |
| 92 | 3 |
| 178 | 3 |
| 204 | 3,5 |
| 224,5 | 3,5 |
| 244 | 3 |
| 302 | 3 |

- LINDEROS: Linda en cada uno de sus extremos (derecha e izquierda ) con las parcelas que a continuación se indicarán y cuyos propietarios son a la fecha las personas que tambien quedan a continuación identificadas:

| Desde P.K. (m) | Hasta P.K. (m) | Propietarios a derecha | Propietarios a izquierda |
|---|---|---|---|
| 0 | 23,5 | Cesar Fernandez Lage | Amaya Uribe-Etxeberria Idigoras |
| 23,5 | 145 | Cesar Fernandez Lage | Juan Luis Eraña |
| 145 | 260 | Timoteo Idigoras Cendoya | Juan Luis Eraña |
| 260 | 273 | Timoteo Idigoras Cendoya | Javier Agirre Bereciartua |
| 273 | 302 | Antonia Gorostiza | Javier Agirre Bereciartua |

**Segundo:** Dadas la características que el acceso de dicho camino ha tenido y tiene desde la carretera GI 3310, limitar el uso de dicho camino al tránsito público peatonal.

**Tercero:** INCOAR expediente para practicar el deslinde del camino conforme al trazado marcado en el plano validado por el punto primero del presente acuerdo.

**Cuarto:** Para realizar el acto público de apeo, citar a los interesados en la fecha y hora indicados en el documento anexo.

**Quinto:** Designar a las siguientes personas como miembros de la Comisión Municipal que participará en la instrucción del expediente y realización del acto de apeo:

*Presidente: Josu Ezkurdia*
*Vocales: Rafa Bernal*
*Aitor Zubizarreta*
*Secretario Municipal: Edurne Iturbe Lascurain*
*Técnicos : Elizabeth Jaregui*

***Sexto:*** Informar a los interesados que pueden presentar hasta veinte días antes de la fecha fijada para el acto del apeo cuantos documentos estimasen conducentes a la prueba y defensa de sus derechos.

**ERANSKINA**

**ANEXO**

| Nº FINCA | Nombre y apellidos del propietario colindante | DIA | HORA | LUGAR |
|---|---|---|---|---|
| 03 061 | Antonia Gorostiza | 04/05/2017 | 10:00 h | CºGorosarri-behekoa |
| 03 492 | Javier Aguirre | 04/05/2017 | 10:00 h | CºGorosarri-behekoa |
| 03 485 | Timoteo Idigoras | 04/05/2017 | 12:00 h | CºGorosarri-behekoa |
| 03 029 | Juan Luis Eraña | 04/05/2017 | 12:00 h | CºErrota |
| 03 489 | Cesar Fernandez | 04/05/2017 | 13:00 h | CºErrota |
| 03 486 | Amaia Uribe-etxeberria | 04/05/2017 | 13:00 h | CºErrota |

**5.- REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARÍA-INTEVENCION DURANTE EL CUARTO TRIMESTRE DE 2016.**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de octubre de 2016 al 31 de diciembre de 2016, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*1.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES) (Anticipio de caja concedido al área de cultura, nº 6 de 2016)*

*2.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES) (Anticipio de caja concedido al museo, nº 1 de 2016)*

*3.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES) (Anticipio de caja concedido al area de cultura, nº 7 de 2016)*

*4.- INFORME REPAROS al reconocimiento de obligaciones por falta de justificación de fondos librados "a justificar" (FALTAN FACTURAS O ALGUNAS NO SON CONFORMES) (Anticipio de caja concedido al area de cultura, nº 8 de 2016)*

*5.- INFORME REPAROS a la Resolución Nº 01146 por eximir del recargo de ejecutiva en la tasa devengada durante el primer trimestre de 2016 por el agua consumida en Aranburuzabala 28-2º izquierda.*

*6.- INFORME REPAROS a la Resolución 1247, relativa a la liquidación de la subvención concedida a ATXORROTX GKE*

*(No se justifica el destino de la subvención)*

*7.- INFORME REPAROS relativa a la liquidación de la subvención concedida a ESKOMOTOR ELKARTEA por R.A. Nº 898.*

*(No se justifica el destino del 100% de la subvención)*

*8.- INFORME REPAROS por injustificación indebida del gasto relativo a la comida de EMAKUMEEN BIRA 2016.*

*(No se presenta factura)*

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**6.- SOLICITUD DE BONIFICACION CURSADA POR COPROPIETARIOS DE DORLETA N.º 10.**

Los copropietarios de Dorleta N.º 10 han solicitado con fecha 12 de enero de 2017 que se les reconozca una bonificación del 90% en el ICIO devengado por el permiso concedido para instalar un ascensor en el edificio.

En la ordenanza municipal que regula el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras se contempla la siguiente bonificación:

*5.3.3.5 Gozarán de una bonificación del 90% de la cuota las obras consistentes en la instalación de ascensores en edificios de dos ó mas plantas cuyo uso principal sea el de vivienda y la instalación del mismo se adecue a las condiciones exigidas en la ordenanza municipal y/o planeamiento municipal aprobado a tal efecto. No tendrán derecho a dicha bonificación las obras de sustitución de ascensores, la instalación de ascensores en edificios de tipología villa familiar o bifamiliar, aislada o adosada y, en general, las actuaciones de instalación de ascensores en edificios de nueva planta (aunque sean sustitución de anteriores) realizadas por los propios promotores y contratistas.*

*Mientras que no se apruebe la ordenanza municipal que se menciona en el párrafo anterior, será el Pleno del Ayuntamiento el órgano competente para resolver sobre la solicitud de bonificación y la concesión de la misma quedará sujeta al cumplimiento de los siguientes requisitos:*

*La instalación del ascensor deberá enmarcarse dentro del edificio.*
*Las obras deberán cumplir las normativas vigentes.*

*La instalación deberá ser entre las posibles alternativas la que en mayor grado mejore la accesibilidad de los ciudadanos a las viviendas del edificio.*

*La instalación deberá ser homogénea con las de los edificios homogéneos del entorno.*

*Deberán ser las mínimas posibles las afecciones a suelo público y a alineaciones.*

Según informe emitido por los servicios técnicos municipales, el ascensor instalado cumple con todos los requisitos exigidos en la ordenanza.

Teniendo en cuenta todo lo mencionado anteriormente, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Conceder a los copropietarios de Dorleta Nº 10 una bonificación del 90% en el ICIO devengado por el permiso concedido para la instalación de un ascensor en el edificio.

**7.- ACUERDO DE ADHESIÓN AL ESPACIO INTERINSTITUCIONAL DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha aprobado el *Decreto Foral de creación de un espacio interinstitucional de participación Ciudadana del Territorio Histórico* de Gipuzkoa, con los siguientes objetivos que se concretan en su artículo segundo:
*a) Articular una red o espacio de encuentro interinstitucional desde la perspectiva de los gobiernos multinivel del Territorio Histórico, especialmente del gobierno foral y de los gobiernos locales, que tenga por objeto impulsar las políticas de participación ciudadana yfortalecer así las relaciones entre la ciudadanía y sus instituciones.*
*b) Establecer un espacio de intercambio de experiencias y buenas prácticas de las distintas instituciones que están presentes en el ámbito de la participación ciudadana, promoviendo una comunidad institucional de aprendizaje recíproco y la mejora institucional en ese ámbito.*
*c) Vehicular canales de asistencia y cooperación técnica para el correcto ejercicio y cumplimiento de las obligaciones normativas, la aprobación de reglamentos, ordenanzas, así como la puesta en marcha de metodologías, procesos e instrumentos de participación ciudadana por parte de las instituciones presentes en el Espacio.*

*d) Servir de cauce para ayudar en la determinación de la política de subvenciones de la Diputación Foral en el ámbito de la participación ciudadana.*
*e) Promover programas formativos y jornadas especializadas que refuercen las competencias institucionales de los cargos públicos representativos con atribuciones en esta esfera transversal y desarrollen las competencias profesionales del personal directivo y técnico foral y local en materia de participación ciudadana.*

Siendo el deseo de este Ayuntamiento formar parte de ese Espacio, se le propone al Pleno la aprobación de esta declaración de adhesión.

Igualmente, como concreta el Decreto Foral en su Disposición Adicional Tercera, esta adhesión exige de la aceptación del compromiso.
Con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** El Ayuntamiento de Eskoriatza se adhiere al Espacio interinstitucional de participación ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa creado por Decreto Foral.

**Segundo:** El Ayuntamiento de Eskoriatza acepta los compromisos concretados por el Decreto Foral en su Disposición Adicional Tercera.

> *a) Participar activamente a través de las personas asignadas en los órganos y estructuras del Espacio, tanto en el ámbito político como técnico.*
> *b) Impulsar, a través de propuestas e iniciativas, el funcionamiento del Espacio.*
> *c) Participar y deliberar a través de los órganos o estructuras competentes del Espacio en los procesos de definición y determinación de los criterios de reparto de las líneas de subvención en materia de participación ciudadana que impulse la Diputación Foral a favor de las entidades locales.*
> *d) Proponer programas concretos de participación, programas formativos, encuentros, seminarios u otras actividades formativas, para que sean debatidos y acordados por los órganos o estructuras competentes del Espacio.*

*e) Proponer guías metodológicas o cualesquiera otros instrumentos o herramientas que faciliten la participación ciudadana, especialmente diseñar modelos y estrategias de presupuestos participativos.*

*f) Aportar al Espacio todas aquellas buenas prácticas en materia de participación que puedan enriquecer el conocimiento de las instituciones que formen parte y mejorar las políticas forales o municipales y del resto de entidades locales en materia de participación ciudadana.*
*g) Conocer y, en su caso, deliberar en torno a los presupuestos del Espacio a través de los órganos o estructuras competentes.*

*h) Colaborar en los procesos de asistencia técnica y cooperación a los municipios y al resto de entidades locales que lleve a cabo la Diputación Foral en materia de participación ciudadana, identificando correctamente los problemas o cuestiones abiertas y promoviendo los reglamentos y ordenanzas-tipo, las guías metodológicas propuestas, así como cualquier otra iniciativa que se impulse en tal Espacio dirigida a mejorar las políticas locales de participación ciudadana.*
*i) Dinamizar el Espacio a través de las estructuras existentes y coordinar, en su caso, los foros técnicos.*

***Tercero:*** *Dar cuenta de esta decisión a la Dirección de Participación Ciudadana del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

DEBATE: Antes de la adopción del acuerdo, se producen las siguientes intervenciones:
- Aitor Zubizarreta dice que, si bien su grupo va a votar a favor, no entiende porqué se ha de adoptar el acuerdo con tantas prisas si en el Decreto no se habla de fechas.
- El alcalde le responde que el tema de la participación ciudadana es de mucha importancia y sobre el que se ha hablado mucho, por lo que considera de sumo interés el que el ayuntamiento tome parte en el proyecto desde un principio y cuanto antes mejor. Además,dice, con ese proyecto se pretende crear un foro en el que se tendrá oportunidad de compartir experiencias, que la Diputación conozca la situación existente en cada

municipio y así direccione las ayudas en función de las necesidades reales de cada uno.

**8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

8.1.- OFICINA DE INFORMACION DE RESIDUOS.

Aitor Zubizarreta pregunta sobre el traslado de la oficina de información de residuos y si con ese traslado todos los servicios que se prestaban hasta abora en Ibarraundi ahora se prestarán en el Ayuntamiento.

Josu Ezkurdia le responde que a instancia de la Mancomunidad el servicio que actualmente se ofrece en el museo Ibarraundi cambiará al Ayuntamiento a partir del 1 de febrero. A partir de esa fecha, ante cualquier incidencia, problema, duda o solicitud de información, se deberá acudir al Departamento de Obras públicas y servicios en el ayuntamiento de Eskoriatza, y será Eli Jauregi la encargada de gestionar el servicio.

8.2.- MAPA DE RUIDOS Y ORDENANZA MUNICIPAL

Nestor Arana informa que ha recibido algunas quejas sobre el lanzamiento de cohetes. Enterado sobre la falta de normativa municipal, manifiesta que, a su entender, tanto ése como el ruido proveniente de otros agentes emisores (cita como ejemplo las industrias) debe ser objeto de regulación y control en todo el término. Así, propone se elabore un “mapa de ruidos” y se apruebe una ordenanza municipal para regular y contralar la emisión de ruidos.

Rafa Bernal, ante la falta de una normativa clara y concisa, se muestra totalmente de acuerdo con la propuesta de disponer de esos dos instrumentos.

Aitor Zubizarreta solicita que para la aprobación de la ordenanza se abra un proceso de participación ciudadana.

La secretaria informa que dicho proceso es preceptivo tras la entrada en vigor de la Ley 39/2015; que, salvo excepciones y que no es el caso, con carácter previo a la elaboración de una ordenanza es preciso someter a consulta y recabar la información de los ciudadanos informándoles sobre los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa, los objetivos de la norma,...

Josu Ezkurida, tras manifestar que la propuesta le parece muy interesante, hace saber que la incluirá dentro del orden del día de la próxima comisión informativa de urbanismo.

Todos se muestran de acuerdo.

8.3.- APARCAMIENTO PARA PATINETES EN LUIS EZEIZA

Nestor Arana da traslado de la necesidad que se ha observado en el colegio Luis Ezeiza de habilitar una zona próxima al centro para que los alumnos/as puedan aparcar los patinetes.
Josu Ezkurdia le responde que tiende conocimiento expreso de esa demanda, que hace aproximadamente quince días estuvo con una representante del colegio y está a la espera de que esta última le mande un presupuesto para poner en marcha el asunto.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:00 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**